

Diru iturriak

Gure proiektua aurrera eraman ahal izateko, ordainketak egitea beharrezkoa da hotelaren lokala alokatzeko, materialak lortzeko... Horretarako, diru-sarrerak lortu ahal izateko txakurrak paseatuko ditugu, banketxeari mailegu bat eskatuko diogu eta Barakaldoko Udalak eskaintzen dituen laguntzak aprobetxatuko ditugu gure hotela Barakaldon baitago.

Lehenik eta behin, bankuko mailegu batetik abiatuko gara, kasu honetan LaCaixak eskainitakoa. CaixaBankek ekintzaileentzako eskaintzen duen maileguarekin finantzatuko dugu enpresa.

Edozein banku-erakunderi finantzaketa eskatu ahal izateko, lehenik eta behin, inbertsioaren hasierari aurre egiteko funts propioak ditugula frogatu behar dugu. Normalean, funts propioak inbertsioaren guztizkoaren %25-30 izatea eskatzen da; gure kasuan, 50.000 euroko mailegua proposatzen dugu 75.000 euroko inbertsioarentzat. Mailegua 72 hilabeteko (6 urte) gehieneko amortizazio-eperako eskaintzen digute, maileguari aplikatuko litzaiokeen interesa % 4koa da eta 782,26 euroko hileko kuotarekin. Ez dago irekiera-komisorik, ezta azterketa-komisorik ere, baina amortizazio aurreratuko eta ezerezteko komisioa badago, amortizatu edo ezereztu beharreko kapitalaren % 0,5.

Aztertu eta mailegua emateko eskatzen diguten dokumentazioa hau da:


- Ekintzaile guztiok autonomoetan alta emanda egotea (Foru Aldundiaren 036 eredua).
- Gu bakoitzaren banku-estraktua, aurrezteko dugun gaitasuna edo inbertsiora bideratuko ditugun funts propioak daudela frogatzen duena.
- PFEZ (2023ko errenta aitorpena)
- Gutako bakoitzaren gizarte-segurantzaren eta ogasunean egunean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Negozioaren bideragarritasun-plana:
 - Inbertsioa guztira: 75.000 euro
 - Funts propioak: 25.000 euro
 - Mailegua: 50.000 euro

Ekiteko, gure aurrezkiak eta bankuko mailegua izango ditugu gidari, grafikoan ikus daitekeen bezala.

Hileko gastuak hauek dira: 3000 euro baserriaren alokairuan, 500 euro albaitariaren nominan eta


400 euro larrialdietan. Beraz, 400 euro horiek aldakorrak izan daitezke, hilean artatutako larrialdiak kontuan hartuta. Animalientzako janaria aldakorra izango da hilero hartzen diren animalien kopuruaren arabera, baina hileko gastua 1.500 eurokoa izango da, batez beste.

Hasierako diru-iturriak



DIRU-SARRERAK

SARRERAK - GASTUAK= 37.200 euroko mozkinak



Grafiko honen arabera, ikusi ahal dugu gure enpresan irabaziak gastuak baino handiagoak izango direla, eta 37.200 euroko mozkina lortuko dugula.

Baina kontuan izan behar da onura horiek areagotu egin daitezkeela hotelak eskaintzen dituen aparteko zerbitzuengatik, hala nola trebatze-eskolengatik (50 euro saioko) eta albaitari-zerbitzuagatik (50 euro berrikuspen bakoitzeko).

Ez dugu ahaztu behar maileguaren kuotak urteko 9387,12 euroko gastua dakarkigula, eta lortutako etekinei kenduta, 27.812,88 euroko behin betiko irabaziak izango genituzkeela.

ALBAITARITZA

Gure maskotek albaitaritza zerbitzu bat izateko aukera izango dute. Gure egoitzan dauden bitartean, familiek erabaki dezakete albaitzaritza zerbitzua hartzea ala ez. Gure zerbitzuak abantailak ditu familiak ez direlako zertaz kezkatu behar, ez baitira albaitaritza lekura garraiatu behar eta beraiek haien maskotetaz ezin direnean arduratu zerbitzu hau jaso dezakete.

Lehenik eta behin, albaitaritza partikular batekin lan akordio bat egingo dugu. Lan akordio bat enpresa batek langile batekin egiten duen akordioa da, horrela langileak bere zerbitzuak enpresari eskaintzeko. Gure kasuan, albaitaria etorriko da hilean behin maskoten osasuna berrikustera. Lan-kontratu mugagabea sinatuko dugu. Horrek esan nahi du muga-datarik gabeko kontratua dela, eta bi alderdietako edozeinek bukatu dezakeela.

Adierazi dugunez, gure albaitaria hilean behin etorriko da, horregatik aproposa iruditu zaigu hurrengo plana egitea:

- Maskota bakoitzeko oinarrizko azterketa 50 euro ingurukoa izango da. Hala ere, animalia zerbait gehiago behar izatekotan; hala nola, bakunak, zerbitzua garestia izango da. Horregatik, animaliak behar duenaren arabera, prezioa 100 euroraino igo daiteke.

- Urtaroaren eta hilabetearen arabera, animalia gehiago edo gutxiago izango ditugu. Ondorioz, hilero, azterketa medikoa behar duten maskoten kopurua desberdina izango da.

- Datu hauek kontuan izanda, albaitariaren soldata 300-400 € ingurukoa izango da. Honek aldatu egingo da animalia kantitatearen arabera

- Ondorioz, ondorioztatu dezakegu 10 maskoten berrikuspena egin ondoren, ateratako irabazia 500 eurokoa izango dela. Eta albaitariari ordaindu eta gero, ateratako mozkina 100-150 €koa izango da.

Baraldoko Udalak ematen dituen laguntzei dagokienez, hauen zerbitu bat aprobetxatuko dugu. Barakaldoko Udalak programa bat du *Inguralde*, enpresa berriak sortu nahi dituzten

pertsonentzat. Programa honek Lanbiderekin lan egiten du diru-laguntzak eta aholkularitza eskaintzeko. Honen bitartez, ideiak berriak dituzten pertsonak laguntzen dira haien proiektua aurrera eramantea errezagoa izan dadin. Laguntza ezberdinak eskaintzen dituzte proiektuaren arabera, gure kasuan, laguntza ekonomikoa beharko genuke proiektua martxan jarri ahal izateko. Biztanleriak proposatutako planentzat 220.000€ dituzte, 2 urtetan ematen dituztenak laguntzak modu mailakatu batean emateko.


Beraz, gure enpresaren plana kontuan izanda (gastuak eta diru-sarrerak), 1500€ emango dizkigutela estimatu dugu. Gure gastuen artean, hotelarentzat behar dugun alokairua eta honen mantenimendua, albaitartitza zerbitzua, materialak... topa ditzakegu. Zehazki emandako dirua beharrezkoak diren materialak eta ondasunak, eta albaitariak ordaintzeko erabiliko genuke.

Laguntza hauek ez dira bueltatu behar haiek ezarritako baldintza guztiak betetzekotan, emandako dirua zertan inbertitzen den modu argian eta zentzuarekin azaltzean, eta epeak betetzean. Hala ere, betekizunak edo datak ez betetzekotan emandako dirua bueltatzea eskatu dezakete.

Urteko urtaroen diru-sarrerak bereizi behar ditugu: hoteleko gaua udazkenean eta neguan 15€koa izango da gaua, 6 hilabetez, eta udaberriko eta udako gaua 25€koa. Horrek dirutan zera suposatuko luke, udazken eta neguko diru-sarrerekin, kontuan hartuta bezero gutxien dituzten urtaroak direla, 10 bezero-txakur, asteburuetan bakarrik ostatu hartzen dutela kontuan hartuta, 300€ko diru-sarrerak izango genituzkeela asteburu bakoitzeko, eta hilabeteak, batez beste, 4€ dituela kontuan hartuta, hilean 1.200€ izango liratekeela guztira. Udaberrian eta udan, gauak 25€ balio duela kontuan hartuta, eta foro osoa asteko 7 egunetan izango bagenu, jendea oportunitate gehien ateratzen den garaietan, astean 3500€koa diru-sarrerak izango genituzke, eta hilean 14.000€, 6 hilabetez.


Hemen ikus dezakegun grafika neguan aste batean izango genituzkeen irabazirik azaltzen dira. Grafiko honek bakarrik azaltzen ditu neguko irabazirik neguan ez delako hainbeste jende oportunitate joaten, beraz, ez dugu hainbeste diru lortuko.

Neguan aste bateko irabazirik



Bitartean, grafika honetan nahiz eta irabazirik maximoak leku berdinetatik etorri, aipatu dugun bezala diru kopurua handiagoa izango da jende gehiago uzten baititu haien maskotak gurekin. Ondorioz, haurtzaindegia eta entrenamenduengatik lortutako irabazirik maximoak lirateke.

Udan aste bateko irabazirik



Laburbilduz, eta gure proiektuaren bideragarritasuna frogatzeko, gastuen aldetik, animalien hotelak urteko 36.000 euroko alokairu-gastu finkoak dakartza, 6.000 euro albaitari-nominarenak, 12.000€ (aldakorrak izan daitezke) baserriaren mantentze-lanetan eta 18.000€ animalientzako janariarenak. Horrek esan nahi du

urtean 72.000€ gastatzen direla guztira.

Eta diru-sarreraren aldetik, Barakaldoko Udalak hilean 1.500 euroko dirulaguntza onartu du, hau da, urtean 18.000 euro. 7200 euroko urteko diru-sarrerak udazkeneko eta neguko 6 hilabeteetan. Bestalde, udaberri eta udako hilabeteetan izaten ditugun diru-sarrerak kontuan hartuta, 84.000 euroko diru-sarrerak izango lirateke denboraldi horretan. Azkenik, horrek 109.200 euroko diru-sarrerak dakartza urtean.

ONDORIOAK

Ondorio nagusia gure txakur-hotel negozio-plana bideragarria izango dela frogatzea da, diru-iturri desberdinak eta gastu kontrolatuak edukitzea. Zerbitzu desberdinen bidez, hala nola txakurren ostatua, trabekuntza eta albaitaritza, urteko edukiko dugun diru-sarrerak garrantzitsuak lortuko ditugu. Gainera, hasteko Barakaldoko Udalaren laguntza edukiko dugu eta mailegu batekin finkatuko dugu hasierako inbertsioa. Gure helburua, maskoten jabeentzako kalitatezko zerbitzu bat eskaintzea da, aldi berean irabazi ekonomiko egonkor bat ziurtatuz.